

PLAZA

» **44 ■ Marlangoren emanaldia Donostian**
«Denonak eta inorenak ez diren denbora eta espazio tarte txiki horiek» maite dituzte taldeko kideek.

«Kanpokoak homologatzen gaitu nonbait, eta salbatzen, eta moderno bihurtzen»

JOAN MARI TORREALDAI 'Jakin' aldizkariko zuzendaria eta euskaltzain osoa

JUAN LUIS ZABALA
Donostia

Oinarri nagusi azterketak dituela, euskal liburugintzaren orainaz eta geroaz gogoeta egin du Joan Mari Torrealdaik (Forua, Bizkaia, 1942) *30 urte liburugintzan* (Jakin) liburuan. Besteak beste, tiraden jaitzieren arriskuez ohartarazi du, «kanpoeder politika» deitzen duena kritikatu du, eta atomizazioa «ahuldadearen sinonimo» dela ondorioztatu du.

Euskal liburuaren tiradak edo argitaraldiak asko jaitzi direla, eta joera horrek aurreantzean ere jarraipena izatea oso arriskutsua dela adierazi duzu, 30 urte liburugintzan liburuak aurkeztean. Azal dezakezu zehazki nola gauza daitezkeen arrisku horren ondorioak ondorengo urteetan?
Tiraden jaitziera Mendealdean fenomeno orokorra dela esan behar da aurrean. Nik hurbilagotik ezagutzen ditudanak Frantziakoak eta Espainiakoak dira, eta ikaratzekoa da urte gutxian izan duten aleen galera. Gurean ez da horrenbestekoa galera, eta abiada ere ez da horren handia. Baina egoera, larriagoa. Zergatik? Ale gutxi galduta ere asko delako gurean, tiradak txikiak baitira berez. Nire beldurra da orain arte bezala segitzen badugu, galdutxak eta galdutxak, halako batean makina gelditu egingo dela, ez dela errentagarri izango liburuak ateratzea. Badakigu orain ere liburu batzuekin galdutxak egiten dela, beste batzuekin pare-edo, eta beste batzuekin irabazi. Horrela mantentzen da oreka, ozta-ozta. Ateratzen den liburu bakoitzeko galtzen bada, akabo edizioa. Puntu horretaraino iritsi gabe ere, tiraden jaitzeak badu ondorio beltzik, eta ez ekonomikoak bakarrik, kulturalak ere bai.

Nolakoak zehazki?

Aleen murrizketak eskaintza editoriala jaitzea dakar, liburuak irakurtzea emateko aukerak murriztu egiten ditu. Badago gehiago ere: bide horretatik liburu minoritarioak hil egingo lirarteke, errentagarri diren liburuak bila joango lirarteke, elako argitaletxeak, bizi ahal izateko.

Zer neurritan da tiraden jaitziera hori irakurleen kopuruaren jaitzieren ondorio eta isla zuzena?

Faktore bat baino gehiago daude tiraden jaitzieren. Badago jaitziera

Duela 30 urte hasi zen Joan Mari Torrealdaik euskal liburugintza aztertzen, eta harrezkero hutsik egin gabe kaleratu du urtean urteko azterketa. Azterketa horien guztien sintesi gisa, '30 urte liburugintzan' (Jakin) liburuak kaleratu du orain.

teknikoa deitu genezakeena; teknologia berriei esker errazago baita gaur egun berrinprimaketak egitea, eta horrelaxe jokatzen da *stock*-ak doitze aldera. Baina bada beste faktore bat, zuk diozuna, irakurleen galtzea. Diotenez, liburuak irakurle asko galdutxak dituzte, baina berriak bereganatzen ez duela asmatu esango nuke nik, azken batean larriagoa dena. Esan nahi dut gazte jendea ez dela inkorporatu nahi adina liburuaren kulturara.

Tiraden inguruan ez da oraindik azterketak fidagarriak egin, eta, zuk dioenez, argitaletxeek emandako datuen artean denetik irakur daiteke, eta sarri askotan benetakoak ez diren datuak, «sasi-informazio».

Tiraden inguruan datu fidagarriak falta direla egia da. Eta sasi-informazio asko irakurtzen dela ere bai. Baina ez dut uste editorialak direnik sasi-informazio horren guturri. Sasi-informazio hori, gainera, ez da tiradei buruzkoa bakarrik. Ez da horren urrutit apirilaren 23a, Liburuaren Eguna: irakurri egun horretan aterako diren informazioak, ez bakarrik tiradaz, baizik eta titulu kopuruaz, salmentaz, irakurketari buruz. Horrelakotan beti galdetzen diot neure buruari: baina nondik ateratzen dute informazio hori? Horretaz naiz kezka, prezio berean edozein merkantzia saltzen delako.

Nork egin beharko luke tiraden azterketa, eta nola?

Oraintxe egin dut nik bat, nire usteria jaitzea dakar, zer esango dizut ba nik. Argitaletxei inkesta egin diet. Eskertzen diet erantzun izana, oso konplexua baitzen. Hor dauka interesatuak tiradaren ebo-luzioa 1976tik hona, liburu moten arabera, eta aldian aldikoa. Hor

«Kanpokoari atekak beti zabalik, kredituak erraz. Nola ez dira ba bertora etorriko? Desiatzen!»

agertzen diren datuak uste dut bolar bolar dabilen batzuk baino zuhurragoak direla. Apalagoak ere badira.

Jaurritzen liburu erosteketa ez da, zure ustez, nahikoa euskarazko liburuaren edizio indartzeko (nahiz eta liburutegi publikoak hornitzeko egokia izan). Produktzio indartu behar da, kontsumo sustatu... Egingo zenioke proposamen zehatzik Jaurritzen euskal liburugintza eta euskal edizioa modu eraginkorrez laguntzeko?

Liburu erostekarekin kritikoenak editoreak eurak dira. Liburutegiak hornitzeko balio lezake erosteketa horrek, baina neurri eraginkoragoak behar dira liburuak laguntzeko. Nik dakidala, behin edo birritan baino gehiagotan egin dizkio sektoreak proposamenak Administrazioari. Ni ez naiz horretan sartzen, nire lana beste bat da. Kontu horiek sektoreak eta Administrazioak elkarrekin landu eta adostekoak dira. Egingo dutelako nago. Ni neu laguntzeko beti prest nago. Gogoan dut Josune Ariztondo eta Xabier Aizpuruak arduradun zirela, hainbat sektore inplikatu ginela. Liburuaren mundua ere arakatu genuen orduan. Uste dut lan polita egin genuela. Baina urteak pasatu dira geroztik.

Bertoko industriaren aldea 30 urte liburugintzan liburuaren atal baten izenburua. Baina, antza denez, aurreiritzi batzuekin egiten du topo bertoko industriaren aldeko zure jarraera horrek. Zeintzuk dira aurreiritzi horiek, eta zer erantzun ematen diezu zuek?

Bertoko industria kulturalaren alde hor eta beste toki askotan hitz egin dut, egia da. Kolonia edo klon batzuk izan nahi ez badugu, bide bat horixe da niretzat. Globalizazioak irentsiko gaitu bestela. Geure ikuspegia lantzeko, ikuspegi hori zabaltzeko tresnak geuk gober-

«Normalizazioak urtero 30-60 liburu ekoizpena duten argitaletxe sendoen multzotxo beharko luke»

natu beharko ditugu, ezta? Geure kultura propioa lantzea ezingo dugu ba utzi kanpokoan eskuetan? Ideia horiek Frantziako editorialgintzan barra-barra bota ditzakete globalizaziotik babesteko. Han ezkerreko planteamendua da; hemen planteamendu bera nazionalismo atzerakoa da.

«Kanpoeder politika» deitzen duzuna kritikatzeko duzu liburuan...

Badugu kanpoeder sindromea, bai, kanpoko miresteko joera gaitxo. Kanpoak homologatzen gaitu nonbait, eta salbatzen, eta moderno eta mundial bihurtzen. Guggenheim gabe, euskal kultura hutsaren hurrengoa. Kanpokoari atekak beti zabalik, kredituak erraz. Nola ez dira ba bertora etorriko Ikea, Guggenheim, Fnac, arkitekto ospetsu guztiak? Desiatzen! Egunotan Ken Follett ibili da Gasteizen, bere liburuaren promozionatzeko, Gasteizko katedrala bere nobelara ekarri duela eta. Harrigarria da nola tratatu dugun. Kaleko eskulturaren inaugurazioa eta guzti. Anjel Lertxundik harrera kanpoederari aipatzen zigun egunkari honetantxe, eta gogora ekartzen Patxi Zubizarretak ere katedral berean oinarritu zuela narrazio bat. Bati gehiegi, besteari batere ez.

Bertoko argitaletxeen artean, berri, askoari da zabaltzen erdarazko liburuak argitaratzeko joera. Zer iritzi duzu horretaz?

Ez dakit nik hemengo editorialgintzan proportzionalki lehen baino erdarazko liburu gehiago ateratzen den orain. Ez dut arakatu. Baina, dena den, ez dut uste euskarazko liburuaren ekoizpena jaitzi denik, literaturan, gizarte gaietan eta zientziakoetan ez behintzat. Edozein modutan ere, auzia, auzirik balego, ez da kuantitatiboa. Zer publikatzen den hizkuntza batean

«Administrazioari ez dagokio dena kudeatzea, gizartearen sortzen diren ekimenak laguntzea baizik»

eta bestean ikusi behar da, zein publiko lantzen den batean eta bestean, etab. Martin Ugaldek zioen bi esku genituela, eta zergatik ez erabili biak? Kontua da zertarako. Eta gero, argitaletxe mota desberdinak daude, eremu jakin bat lantzen dutenak, literatura, zientzia, pentsamendua eta horien ondoan handiagoak, orohartzaile edo generalistak. Horietako bakar bat ere ez dago sobran. Nik beti defenditzen dut, hori bai, euskal argitaletzaren normalizazioak urtero 30-60 liburu ekoizpena duten oinarri sendoko argitaletxeen multzotxo bat beharko lukeela.

Aniztasunaren alde zaudete, baina atomizazioaren arriskuez ohartarazten duzue: «Atomizazioa, nire ikuspegian, ez da aniztasunaren sinonimo, ahultasunarena baizik».

Urtero-urtero, editorialgintzaren panorama ikusten dudanean, gogoratzen dut asko izatea gauza bat dela eta askotarikoa, plurala izatea beste bat, eta urtero bereizten ditut aniztasuna eta atomizazioa. Ba al dakizu urtero zenbat argitaratzaile egon ohi diren euskaraz? Ia 300. Hori ez da aberastasuna, hori ez da aniztasuna, hori ahuldadearen sinonimo da niretzat. Horietatik zenbat izango dira liburuak argitaratzeko sortuak, editorialak? 50 bat? Eta zenbat benetako editorial? 300 horietako asko autore-editor, talde, elkarte, udalaxe eta hola-lakoak dira. Urteko aurrekontuak huts egiten badu, kito liburuak, ezta? Ugari bai, baina ahul, hori da niri gustatzen ez zaidan argazkia. Eta ez zait gustatzen, edizio mota horrek ez indartu, ez bermatu egiten duela liburugintza.

Liburuaren Behatokiak zer lan egingo duen iragarri duzu 30 urte liburugintzan liburuan: euskal liburuaren katalogoaren garapena, liburuari buruzko jakintzaren kudeaketa eta informazioaren gizaratzea. Baina beste xehetasun askoren inguruko informazioak ez dago: langileen kopurua, finantzaketa, noizko egongo dengeru...

Behatokia, egia esateko, nire neurri ibilbidean eta Jakin-entzatz aurreraren bidean ematen den pauso logikoa da: liburuaren fitxa biltzetik katalogora eman guren pausoa. Eta orain behatokia, katalogoa bera garatzeko eta informazioa sistematikoki tratatzeko eta landuz ja-